



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO URRIAREN 16AN GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

Idazkaria: Olatz de Miguel Arnaiz.

Ez dira bertaratu: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/09/29KO OHIKO BILKURA.

Joxe Mari Iribar abstenitu egin da ez zelako irailaren 29ko bilkuran egon.

Beste bi batzarkideen aldeko botoarekin irailaren 29ko bilkurako akta gehiengoz onartu da.

2.- COVID 19ARI AURRE EGITEKO, USURBILGO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SEKTOREETAN EKONOMIA INDARBERRITZEKO, JARDUERA EKONOMIKOA PRESTATZERA BIDERATUTAKO INBERTSIOAK DIRUZ LAGUNTZEKO OINARRIAK.

Esp.zk.: HE.03/2020-0130

Ikusirik

Covid-19ak eragindako egoerak eragin negatiboa izan du alor ekonomikoan, bereziki Usurbilgo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko establezimenduetan, galera nabarmenak jasanez. Honela ezinbestekoa izan da, Usurbilgo Udalak, gizartearen interes orokorraren ikuspuntutik, herriko dendetan erosketa sustatzea, herriko sektore hauetako profesionalen eskutik eta herritarrekin batera, honela, osasun alarma bukatzen denean, lehenbailehen jarduera berreskuratzeko.

Usurbilgo Udalak, ikuspegi honetatik hainbat neurri hartu ditu, Covid-19ak, tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduetan sortutako kalte ekonomikoak arintzen laguntzeko, tokiko kontsumoa sustatzeko, herri izaerako jarduera eta elkartasun portaerak sustatzeko, herritarrak aktibatuz. Honela, Usurbilgo Udalak, batetik, herri mailako bi bono kanpaina jarri ditu abian, oraindik ere indarrean direnak, eta bestetik, ostalaritza arloko hainbat establezimenduk (taberna, kafetegi eta ostatuetan), kalte ekonomikoak arintzen laguntzeko, finkoak kontsideratzen ziren gastuei aurre egiteko beste diru-laguntza bat eskuratzeko aukera izan dute.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2020ko ekainaren 10ean, merkataritzaren eta ostalaritzaren



Usurbilgo Udala

sektoreetan ekonomia suspertzeko programaren oinarri arautzaileak eta 2020rako deialdia argitaratu dira. Programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu du, Covid-19ari aurre egiteko.

Onuradunak Udalak izango dira, baina helburua merkataritza eta ostalaritzako sektoreetako inbertsioak finantzatzea da, Covid-19 aurre egiteko jarduera ekonomikoa prestatzeko.

Helburu horrekin Udal honek 28.006,00 € -ko dirulaguntza jaso du.

Orain, Usurbilgo Udalak merkataritza eta ostalaritza sektoreek egiten dituzten inbertsioak finantzatu behar ditu dirulaguntza honekin.

Eta kontuan harturik

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
2. Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, Uztailaren 21ekoa.
3. Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Covid 19ari aurre egiteko, Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko, jarduera ekonomikoa prestatzera bideratutako inbertsioak diru-laguntzeko Oinarriak onartzea.

Bigarrena: Diru-laguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da, 1.5000.480.241.00.06 Covid 19 merkatarientzat laguntza GFAtik, 28.006,00 € zenbatekoarekin.

Hirugarrena: 2020-2022 epealdiko Diru-laguntzen plan estrategikoan sartzea.

Laugarrena: Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bostgarrena: Eskerak aurkezteko epea, oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2020ko azaroaren 20 arte.

Seigarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

3.- IBINDOS BASERRIAN (AGINAGA 79) EGINDAKO OBRAK LEGEZTATZEA ETA BASERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2008-0577

KERMAN REKONDO ARZALLUS jaunak, Ibindos baserrian (Aginaga 79) egindako obrak



Usurbilgo Udala

legeztatzea eta baserriari ehen erabilera baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amai Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, ALDEKO txostena eman du 2020ko urriaren 9an. Hitzez hitz honela dio txostenak:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
LEGEZTATZEA

IBINDOS BASERRIAN EGINDAKO OBREN LEGEZTATZEARI TXOSTENA

KOKAPENA: Ibindos baserria, Usurbil.
ESKATZAILEA: Kerman Rekondo Arzallus
ESKAERA OAT A: 2020ko urriaren 9a
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2008-577

AURREKARIAK

- 2008ko abenduaren 19an interesatuak Ibindos baserrian egindako obra legeztatzeako eskaera egiten du
- 2009ko martxoaren 16an udal arkitektoak txostena idazten du dokumentazio osagarria eskatuz
- 2020ko urriaren 9an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du

TXOSTENA

2008ko abenduaren 19an Kerman Rekondo Arzallusek Ibindos baserrian egindako obra legeztatzeako eskaera egin zuen, horretarako proiektua aurkeztu zela. Udal arkitektoak bere txostenean honako baldintza hauek ezarri zituen obra-lanak legeztatu ahal izateko:

- Baserrian ezarritako instalazio guztien planoak aurkeztea
- Fatxadan egitura zehazten duen eraikuntzaren sekzioak aurkeztea
- EKT-aren 08-HE-ko 4. atala betetzearen justifikazioa aurkeztea

2020ko urriaren 9an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du. Aurkeztutakoa aztertu ostean, honakoa esan daiteke:

- EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA: eskatutako planoak aurkeztu dira; bai instalazioenak, eta bai eraikuntzaren xehetasunarenak ere. DB-HE-ko 4. atalaren justifikazioari dagokionez, aurkeztutako bero-ponpa aerotermikoaren instalazioak EKTak ezarritakoa betetzen duela esan behar da, beraz, aurkeztutako dokumentazioa ontzat ematen da.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, Ibindos baserrian egindako obra legeztatzeako eskaerari, eta ondorioz, lehen erabilera baimena emateari **ALDEKO** txostena idazten zaio.



Usurbilgo Udala

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2020ko urriaren 9an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Ibindos baserrian (Aginaga 79) egindako obrak legeztatzea eta baserriari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari, udal erroldako arduradunari eta kontuhartzaileari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:50etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.